

**Txostena
Memoria****FORU FUNDazioak / FUNDACIONES FORALES****BIZKAIA-BIZKAIALDE FUNDAZIOA
FUNDACION BIZKAIA-BIZKAIALDE**

2000. urtean eratutako "BIZKAIA-BIZKAIALDE" kirol- eta gizarte-fundazioak, izaera pribatu eta iraupen mugagabekoak, Bizkaiko Lurralde Historikoa du bere jardueretarako eremu.

Fundazioaren jardueren onuradun nagusiak Bizkaiko herritarrok dira, eta oro har, Euskal Herri osokoak.

BIZKAIA-BIZKAIALDE Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakunde gisa eratu da, eta azken helburu du Bizkaiko kirola sustatzea eta garatzea eta errendimendu-kirolari arreta berezia egitea, batez ere mota guztiako baliabide ekonomikoak erakarriz, gehienbat babesle publiko zein pribatuengandik. Era horretan bildutako baliabideak Bizkaiko kirolariei laguntzeko programak finantzatzeko erabiliko ditu.

Hortaz, biltzen duen jatorri publiko zein pribatuko dirua kirola sustatzen duten erakundeen ahalegin ekonomikoak koordinatzera zuzenduko du, kirolaren arloan antolakuntza egokia eta eraginkorra lortzeko eta babesleen inbertsioetatik albait atarramentu onena ateratzeko.

Administrazioaren eta ekimen pribatuaren elkarlanak, bestalde, lankidetzazko bide emankorra irekitzen du Bizkaia sustazeari begira.

Bizkaia Bizkaialde Fundazioaren helburua da beren baliabideei esker estatu-mailako lehiaketetan toki nabarmena eskuratu duten Bizkaiko kirol-taldeak lehiaketa-maila gorenera irits daitezten eta bertan euts dezaten.

Hala izan dadin, Fundazioak lan-ildo hauetatik jardungo du, besteak beste:

- Era guztiako pertsona fisiko zein juridikoengandik, horiek publikoak nahiz pribatuak izan, baliabide ekonomikoak lortzea eta Bizkaiko kirola sustatzeko eta garatzea egitasmoetara bideratzea, errendimendu-kirolari lehentasuna emanet.

Bajo la denominación de "FUNDACIÓN BIZKAIA-BIZKAIALDE" en el año 2000, se constituyó una fundación deportiva y social, que desarrolla sus funciones en el Territorio Histórico de Bizkaia

Los y las beneficiarias de las actividades de la Fundación son principalmente los y las ciudadanas de Bizkaia y, en general del País Vasco.

La Fundación BIZKAIA-BIZKAIALDE se configura como una Entidad sin ánimo de lucro que persigue, como objetivo final, la promoción y desarrollo del deporte vizcaíno, con prioritaria atención al deporte de rendimiento, especialmente mediante la captación de recursos económicos de todo tipo, preferentemente patrocinios públicos y privados, que destinará a la financiación de los programas de apoyo a las y los deportistas de Bizkaia.

Para ello, concentra fondos públicos y privados destinados a coordinar los esfuerzos económicos de las entidades patrocinadoras del deporte, con el fin de lograr una correcta y eficaz ordenación del deporte y rentabilizar al máximo la inversión de las y los patrocinadores.

Este trabajo en común entre la administración y la iniciativa privada, permite, además, abrir una fructífera vía de colaboración, para la promoción de Bizkaia.

El objetivo de la Fundación Bizkaia Bizkaialde, es posibilitar el acceso al más alto nivel competitivo y el mantenimiento en el mismo de los equipos deportivos vizcaínos, que, por sus propios medios, han logrado una posición destacada dentro de las competiciones estatales.

Para el cumplimiento de este fin, desarrolla actuaciones tales como:

- Captación de recursos económicos de cualesquiera personas físicas o jurídicas, públicas o privadas, para destinar tales recursos a programas de promoción y desarrollo del deporte de Bizkaia, con prioritaria atención al deporte de rendimiento.

**Txostena
Memoria****FORU FUNDAZIOAK / FUNDACIONES FORALES****BIZKAIA-BIZKAIALDE FUNDAZIOA
FUNDACION BIZKAIA-BIZKAIALDE**

- Bizkaiko kirola sustatu eta garatzeko baliagarri diren kirol-ekitaldiak antolatzea.
- Kirolaren babesle edo lagunzaileak lortzeko ekimenak sustatzea.

Fundazioaren laguntzen hartziale izango dira, batez ere, profesionalak izan gabe "Bizkaiko Elitea" deitura eskuratu duten talde-kirolak. Laguntzen onuradun nagusiak dira, beraz, lehiakortasunari eusteko sostengu ekonomikoaren beharra duten Bizkaiko taldeak.

Enpresa eta erakunde babesleen kopuruari dagokionez, ohartu beharra dago oraingoa une egokiena ez izan arren Fundazioak etsi gabe diharduela horien kopurua handitzeko edo, gutxienez, behera ez egiteko. 2014.urtean Fundazioak berrogeita bat erakunde babesle izan ditu. 2015. urterako aldiz, 43 enpresa babesle aurreikusten dira, 2016.urterako zenbateko hori mantentzeko esperantza dagoelarik.

2014.urtean hogeita zazpi kirol klubek lortu izan dute Fundazio honen laguntza. 2015. urtean zenbateko hau mantentzeko edo handitzeko esperantza daukagu, eta 2016. urterako ere.

2014.urtean miloi bat berrogeita lau mila berrehun eta hogeita zortzi euro (1.044.228,00 €, 999.967,00€ diruzko laguntzak y 44.261,00€ diruzkoak ez diren laguntzak) banandu ziren laguntza moduan. 2016.urteran miloi bat ehun mila euro banatzeko helburua dago (1.100.000 €, 1.050.000€ diruzko laguntzak, 50.000€ diruzkoak ez diren laguntzak).

- Organizar, eventos deportivos que contribuyan a la promoción y desarrollo del deporte vizcaíno.
- Promover las operaciones de sponsorización deportiva.

Las ayudas de la Fundación se dirigen fundamentalmente a deportes colectivos no profesionales, que hayan alcanzado la calificación de "Elite Vizcaína". Estas ayudas favorecen los clubes vizcaínos, que necesitan de un apoyo económico para poder mantener su competitividad.

En cuanto al número de empresas y entidades colaboradoras, señalar que aunque el momento actual no es el más idóneo la Fundación sigue trabajando para si no es incrementar, al menos conseguir que se mantenga el número de patrocinadores. El número de entidades colaboradoras y patrocinadoras de la Fundación para la temporada correspondiente al año 2014 ha sido de cuarenta y una. Para el 2015 se prevén unas 43 empresas colaboradoras, que esperamos se mantengan para el 2016.

El número de equipos beneficiarios de las ayudas en el año 2014 ha sido de veinte y siete Clubs deportivos. Esperamos que este año 2015 esta cifra se mantenga o pueda incrementarse, al igual que para el año 2016.

La cuantía de las ayudas otorgadas el año 2014 ascendió a la cantidad de un millón cuarenta y cuatro mil doscientos veinte ocho euros (1.044.228,00 €, 999.967,00 € ayudas monetarias y 44.261,00 € de ayudas no monetarias) y para el año 2016 se prevé conceder en torno al millón cien mil euros (1.100.000 €, 1.050.000 € ayudas monetarias, 50.000 € de ayudas no monetarias).